

CENG batzordea gizarteak helarazten dizkion iradokizunetara eta beharretara irekita dago, eta lan-saioetan aztertzeko konpromisoa hartzen du.

WEBGUNEA:

<https://www.mitma.gob.es/organos-colegiados/consejo-superior-geografico/csg/comisiones/comisiones-especializada-de-nombres-geograficos>



POSTA-HELBIDEA:

CONSEJO SUPERIOR GEOGRÁFICO
Comisión Especializada de Nombres Geográficos
C/ General Ibáñez de Ibero, 3
28003 Madrid
secretaria.gral.ign@mitma.es

INSTITUTO GEOGRÁFICO NACIONAL
<https://www.ign.es>

NIPO digital: 798-23-039-1



CONSEJO SUPERIOR GEOGRÁFICO¹ ORGANIZACIONEN COMISIÓN ESPECIALIZADA DE NOMBRES GEOGRÁFICOS² BATZORDEA

Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen Konferentziak (1967tik bost urtero antolatzen dira) herrialde bakoitzean izen geografikoen inguruko organo nazional bat egotea gomendatzen dute, gai horretan eskumena duten erakundeak koordinatzeko eta estatu mailan benetako normalizazioa lortzeko, nazioarteko normalizazioari ekin aurretik.



Nazio Batuetako informazio-foiletoa

Espanian, eskumena duten administrazioak koordinatzeko eta Izendegi Geografiko Nazionala onartzeko ardura Consejo Superior Geográfico-ak¹ du. Horren barruan Comisión Especializada de Nombres Geográficos² (CENG) izeneko batzordea dago, zeinek ikerketak eta proposamenak egiten dituen gai horien inguruko erabakiak prestatzeko (1545/2007 Errege-dekretua, 2007ko azaroaren 23a).

Nortzuk dira CENG-eko kideak?

Partaideak izen geografikoetan adituak dira eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako ordezkari gisa hartzen dute parte. Halaber, unibertsitateetako, hizkuntza-akademietako eta toponimiarekin zerikusia duten bestelako erakundeetako ordezkariak ere badaude.

1. Geografiako Kontseilu Nagusia
2. Izen Geografikoen Batzorde Espezializatua



Izen Geografikoen Batzorde Espezializatuaren jardunaldiak.

Zeintzuk dira CENG-aren helburuak?

Helburu nagusiak hauek dira:

- Toponimiaren normalizazioa bultzatzea Espainian, erakunde eskudunekin lankidetzan.
- Izen geografikoen ezagutza, erabilera normalizatua eta ondare kultural gisa duten balioa sustatzea.
- Consejo Superior Geográfico-ko* Batzorde Iraunkorraren aurrean proposamenak aurkeztea.

Batzordearen jarduera-planak oinarritzko lan-ildo hauek jasotzen ditu:

- Toponimiaren normalizazioan aurrera egitea.
- Koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.
- Izen geografikoen inguruko prestakuntza eta ikerketak bultzatzea.
- Toponimia zabaltzea eta gizarteratzea.

* Geografiako Kontseilu Nagusia

COMISIÓN ESPECIALIZADA DE NOMBRES GEOGRÁFICOS*

IZEN GEOGRAFIKOEN GARRANTZIA ETA ERABILERA NORMALIZATUA IZATEAREN BEHARRA




* IZEN GEOGRAFIKOEN BATZORDE ESPEZIALIZATUA

IZEN GEOGRAFIKOEN BALIOA

Izen geografikoa edo toponimoa toki-izen propio bat da. Toponimoak gure inguruan ditugun tokiak izendatzeko erabiltzen ditugun izenak dira: kaleak, herriak, hiriak, ibaiak, mendilerroak, aurkintzak, etab. Orokorrean, osagai espezifikoak eta osagai generikoak dituzte (Lokiz mendilerroa / Sierra de Lokiz, Gorkizko hondartza / Playa de Gorkiz, Oria ibaia / Río Oria...).

Toponimoek honetarako balio dute:

- Giza jarduerak garatzen diren tokiak identifikatzeko eta kokatzeko.
- Mapak irakurtzeko, kartografiaren oinarriko elementuetako bat diren aldetik.
- Informazio-iturri desberdin askotara zuzenean eta intuitiboki sartzeko, Internet bidez bereziki.



Toponimia kartografiaren zati garrantzitsua da (598 orria-III Plasencia, MTN25)



- Informazio geografikoko sistemak (GIS), datu espazial-letako azpiegiturak (IDE) eta datu digitalen bestelako multzoak integratzeko eta sistema horietara sarbidea izateko.
- Tokien zenbait ezaugarriren berri izateko, izenaren esanahiaren bidez.
- Hainbat ikerketa-arlotarako informazioa lortzeko (hizkuntzalaritza, geografia, historia, arkeologia, ingurumena...).

“Mundu globalizatu eta digital honetan, izen geografikoak informazioa izatera heltzeko giltza dira ezinbestean.”

Nazio Batuetako Izen Geografikoetako Aditu Taldea

Toponimoak gure kultura-ondare ukiezinaren zatia dira:

- Hizkuntzen alde garrantzitsua dira, eta horien bilakaera agerian uzten duten formak gordetzen dituzte.
- Historiaren eta antzinako zein gaur egungo bizimoduaren lekuko balioak dira.

Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen 9. Konferentziak (2007) IX/4 ebazpenean toponimoak kultura-ondare ukiezinaren parte direla zehazten du.

NORMALIZAZIOAREN BEHARRA

Izen geografikoen normalizazioa agintaritza eskudunak tokien izena eta idazkera zuzena onartzean datza, beti ere indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Izen normalizatuaren erabilera ezinbestekoa da toki bat zalantzarik gabe identifikatzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da herri administrazioetan, hedabideetan, kartografian, informazio geografikoko sistemetan, bide-seinaleetan eta argitalpenetan erabiltzea.



Bide-seinaleetan oker erabilitako toponimo baten adibidea. Izen ofiziala «Riocabado».

Nork normalizatzen ditu izen geografikoak?

Espainia estatu autonomiko modura eratuta dagoenez, izen geografikoen inguruko eskumenak administrazio desberdinen artean banatuta daude:

- Estatuko Administrazio Orokorrek bere titulartasunaren mende dauden interes orokorreko entitate geografikoen izen ofiziala ezartzeko eskumena du.
- Instituto Geográfico Nacional-ak *(Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana) eskumena du, batetik, autonomia erkidego bati baino gehiagori eragiten dion toponimia zehazteko, eta bestetik, toponimia ofiziala normalizatzeko eta horren zabalkundea egiteko, lan hori eragile eskudunekin koordinatuz.
- Autonomia erkidegoen eskumenak bakoitzaren eremuko izen geografikoei buruzko legedian garatu dituztenak dira, foru aldundiek, kabildoei, uharteetako kontseiluek eta udalek ezarritakoekin bat etorriz.

Zeintzuk dira normalizazioaren onurak?

Nazio Batuetako Izen Geografikoetako Aditu Taldearen arabera, nazioarteko esparruan ez ezik, esparru nazionalan edo lokalean ere izen geografiko zuzenak izatea funtsezkoa da, datu geografikoak zenbait testuingurutan hobeto ustiatzeko:

- Plangintza jasangarriak diseinatzeko estrategietan.
- Garapen ekonomikoan.
- Ingurumenaren kudeaketan.


* ESPAINIAKO INSTITUTU GEOGRAFIKO NAZIONALA



- Banaketa-zerbitzu kolektiboaren azpiegituraren.
- Biztanleriaren erroldetan eta estatistiketan.
- Jabetza-eskubideetan eta katastroan.
- Larrialdi eta giza laguntzako zerbitzuen koordinazioan.
- Merkataritzan eta turismoan.
- Ondare kulturalaren eta naturalaren sustapenean.
- Hedabideetan.
- Mapak, atlasak eta nabigazio-mapak egitean.

Toponimiaren hizkuntzak Espainian

Espainian, toponimiaren normalizazioak kontuan izan behar du lurraldean hizkuntza bizi desberdinak daudela, eta egoera horrek hizkuntza-aherastasuna ekartzen duela. Toponimoak gaztelaniaz normalizatuta ager daitezke, horixe baita Espainiako hizkuntza ofiziala. Horrez gain, autonomia erkidego batzuek berezko dituzten hizkuntza koofizialeak (galegoa, euskara, katalana edo valentziera eta aranera) edo beste hizkuntza ere dialektoetan (asturiera, leonera, aragoiera) ere egon daitezke, toponimian askotan ahozko hizkuntzaren ezaugarriak agertzen direla ahaztu gabe.



Espainiako hizkuntza-mapa.